

GAKO EKONOMIKOAK

- Ukrainian gerra-gatazkak okerrera egin du, nahiz eta negoziazioek irekita jarraitzen duten.
- Gerraren ondorioz inflazio tentsioak areagotu dira eta banku zentralak prezioak igotzeko espiralari eusteko zeukaten jarrera ere. Nazio mailan, faktura energetikoa eta elektrikoa jaisteko neurriak hartu dira.
- Burtsak hilaren bigarren astetik hasi ziren hobetzen, eta saldo positibo utzi zuten mundu mailan, jeitsiera minimoekin Euro Zonan baina jaitsiera nabarmenarekin Txinako burtsan. Merkatuko tasen igoeren ondorioz, galerak izan dira errenta finkoan.
- Hegazkortasun oso handia petrolioaren prezioan, zeinak hila % 5 garestiago bukatu duen. Bestalde, Euroa dolarrekiko ahuldu da.

MAKROEKONOMIA ETA MERKATUAK

Martxoan, Ukrainian gerra gatazka gogortu bazen ere, egunak igaro ahala, negoziazioek gatazkaren konponbide baten itxaropena pizten joan da. Egun, oraindik ere bake akordioak ez badago ere, Errusiaren aldetik intentsitate militarra arintzeko konpromisoa lortu da, eta Ukrainiak uko egin dio NATOren kide izateari, segurtasun bermeak izatearen truke. Burtsa merkatuak dagoeneko ohitu dira bonba-hotsera eta gerra hasi aurretik zuten mailara itzuli dira nahiz ta panorama konplexu baten aurrean egon, inflazio-tentsio handiagorekin eta munduko hazkuntzaren inguruan ardurak eraginda. Gerra dela eta lehengai guztien prezioa izugarri igo da eta, ondorioz, janariarena ere. Horrek areagotu egin inflazioaren arazoa. Ondorioz, EBk, commodities direlakoen igoerekiko zaurgarriagoa izanik, prezioen krisialdia gelditzeko eta hobetze ekonomikoa ez eragozteko neurriak nazio mailan hartu behar izan ditu, erregaian deskontuak emateko laguntzak esaterako, eta Espainiaren eta Portugalen kasu berezian, aldi baterako mugak jarri dituzte elektrizitate sortzeko erabiltzen den gasaren prezioari. Horrez gain, Europak gas hornikuntza igotzea adostu du AEBekin, Errusiarekiko mendekotasuna gutxiagotzeko, Kremlinek energia erriblotan ordaintzeko obligazioaren ondorioz eta Europako industriaren agertokia gelditzeko aukera dela eta. Amerikako ekonomiak, bestetik, badirudi hobe jasaten dituela tentsio geopolitikaren boladak eta, gerratik kanpo, zalantzak Txinara islatzen dira, zeina bere covid zero kasuen politika birplanteatzen hasi zen Shangaiko konfinamenduek eragindako inpaktuengatik. Bestalde, Banku zentralak, nahiz eta hazkuntza ahulagoa izan daitekeela onartu, prezioekin beligeranteago aurkezte nahiago izan dute, inflazioaren gehiegizko igoera eragozteko. Horrela, FEDak, zeinak martxoan 2018tik 25pbko tasen lehenengo igoera egin duen, edo Ingalaterrako Bankuak zeinak ondoz ondoko 3 igoera lerrotatu dituen, politika monetarioaren normalizazioa bortizagoak izango direla adieraziz. Bien bitartean, BCEak espero baino gehiago aurreratu ditu aparteko pizgarrien bukaera eta interes tasak aurten bertan igo ditzakeela jakinarazi du.

ERRENTA ALDAKORRA

Burtsaren indizeek martxoaren bigarren astetik hasita hegazkortasun ikaragarriak eta erresilientziak markatutako hila itxi dute, kasu gehienetan, gerra hasi zenetik galdutakoa berreskuratu dutelarik. Hortaz, S&P-500 indizeak hileko % 3,5eko igoera izan du Amerikako merkatuan, eta urteko saldoa % 5eko galeretara murriztuz. Nasdaq teknologikoak, bestetik, % 4ko igoera izan du martxoan, baina % 9ko galerak izan ditu hiruhilekoaren hasieratik. Atlantikoaren beste aldean, hileko emaitzak arinagoak izan dira, Europa ekialdeko egoerarekin zer gertatuko den zain. Eurostoxx eta euro eskualdeko gainerako indizeek galera arinak izan dituzte, % 1ko jeitsierak gainditu ez dutenak. Urteko zenbakekoan, lbexaren espozizio txikiagoa erusiar merkatura lagundu dio gaur egun % 3ko jaitsiera bakarrik metatzeko, haren homologoek, Alemaniako Daxak, Frantziako Cacak edo Italiako Mibak oraindik saldo negatiboak badituzte ere, % 9,25, % 6,89 eta % 8,5 hurrenez hurren. Berriz ere Europan, martxoan zehar sektoreen dispersio handia bizi izan dugu, non energiak eta oinarriko baliabideak egon diren irabazien buruan, farma edo telekomunikazio defentsiboen batera. Zigortuenen artean autoak, kontsumoak eta bankuak izan dira, zeinak azken asteetan moneta politikei eta sentimendu ekonomikoen hondamainen inguruko berriei jarraitu dieten. Nazioarteko gainerako merkatuetan, Japonia % 4,8 igo da, eta baita emergente gehienak ere. Albo batean geratu dena Txinako burtsa izan da, % 6 jaitsierakin, covid kasuen agerraldi garrantzitsu baten ondorioz haren hazkuntza arriskuaren beldurra berpiztu bait da.

| INDIZEA | ESKUALDEA | ORAINGO MAILA | DIBISA | HILEKO ALDAK. | 2022ko ALDAK. |
|--------------|-------------|---------------|--------|---------------|---------------|
| IBEX-35 | ESPAINIA | 8.445,10 | EUR | %-0,40 | %-3,08 |
| EUROSTOXX-50 | EUROPA | 3.902,52 | EUR | %-0,55 | %-9,21 |
| S&P-500 | AEB | 4.530,41 | USD | %3,58 | %-4,95 |
| DOW JONES | AEB | 34.678,35 | USD | %2,32 | %-4,57 |
| NASDAQ 100 | AEB | 14.838,49 | USD | %4,22 | %-9,08 |
| NIKKEI-225 | JAPONIA | 27.821,43 | JPY | %4,88 | %-3,37 |
| EMERG. MSCI | EMERGENTEAK | 1.141,79 | USD | %-2,52 | %-7,32 |
| MUNDUKO MSCI | GLOBALA | 3.053,07 | EUR | %2,52 | %-5,53 |

Iturria: Bloomberg

ERRENTA FINKOAK

Errenta finkoko merkatuak izan dira kaltetuenak hilabete honetan, errentagarritasun negatibo garrantzitsuenak izan dituztelako. Zor publikoa, inbasioaren unerik txarretan babes gisa jokatu zuena, banku zentralen etorkizuneko jardueretan zentratu zen berriz ere, prezioen egonkortasuna errazteko, ondorioz haren tasek indarrez egin zuten gora bukaeran. Hortaz, 10 urterako bonu alemanak oinarriko 41 puntu igo da, hilabetea %0,55 errentagarritasunakin itxiz, eta Espainiako bonuak 32 o.p., % 1,44 arte. AEBtan, kurbaren tarte laburrak sufritu du gehien. 2 urterako bonua duela 10 urte ordaintzen zen bezala ordaintzen da gaur egun, hau da, % 2,34. Korporazioaren zorraren arloan, Europako diferentzialak nahiko egonkor mantendu dira, eta kalitate txarreneko kasuetan murrizketa arinak izan dira.


| INDIZEA | EPEA | ORAINGO MAILA | HILEKO ALDAK. | 2022ko ALDAK. |
|--------------------------|---------|---------------|---------------|---------------|
| EURIBOR | 3 HIL. | -0,46 | 0,07 | 0,11 |
| | 6 HIL. | -0,37 | 0,12 | 0,18 |
| | 12 HIL. | -0,10 | 0,25 | 0,40 |
| ALEMANIAKO ZOR PUBLIKOAK | 2 URTE | -0,07 | 0,46 | 0,55 |
| | 5 URTE | 0,38 | 0,54 | 0,83 |
| | 10 URTE | 0,55 | 0,41 | 0,73 |
| ESPAINIAKO ZOR PUBLIKOAK | 2 URTE | 0,21 | 0,27 | 0,83 |
| | 5 URTE | 0,85 | 0,37 | 1,00 |
| | 10 URTE | 1,44 | 0,32 | 0,87 |

Iturria: Bloomberg

DIBISAK ETA LEHENGAIK

Euroak Amerikako monetaren aurrean % 1 galdu du, dolarra babesgune bihurtu bait da Ukrainiako gerra hasi zenetik. Horrez gain, FEDaren aldetik tasen igoerak eta diruaren prezioaren igoera azkarraren mezuak amerikar monetaren aldeko fluxu asko zuzendu ditu, euroaren kalterako. Itxieran, moneta bakarrak 1,106\$/euroko trukea lortu du. Lehengai dagokienez, igoera orokorrak izan dira. Izan ere, petrolioak hegazkortasun handia izan du faktore kezkarri ugariaren ondorioz: bakea lortzeko elkarriketak, Errusiari jarritako zigoren iraupenak, Iranekin hornitzeko akordioa lortzeko zailtasuna, Txinan Covidarekiko kezka eta AEBko erreserba estrategikoen kantitate handi baten salmentaren eta eskaeraren aurreikuspenak, esaterako. Horrekin guztiarekin, Brentaren hileko igoera % 5era mugatu da, eta europar upela 106,60\$/tan geratu da. Gasak ere igoera handia izan du, Errusia hornikuntzaren zati bat erriblotan ordaintzea eskatu baitie lagun ez diren herrialdeei.

Euro/Dolar



Iturria: Bloomberg